

Goierri tarra

323. zenbakia 2007ko ekainak 22

Irizar autobusak

DENBORAN ZE HAR BIDAIATUZ



ARGI
OPTIKA

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

E W M E
zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

PRADA Salvatore Ferragamo EXTRE ROMEO GIGLI



restone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

San Joan sua



Joxe Munduate

Sanjoanak badatoz
urteroko festa
suaren inguruan
mutil eta neska
brasatara zer bota
gabiltza galdezka
ongi ez asmatzeak
sortzen digu kezka.

Suak piztu ondoren
amets denak lagun
asmo txarrak deusezten
elkarrekin jardun
pentsatzen aritu naiz
majina bat egun
lehen ere su gehiegi
ez ote daukagun.

Doinua: "Triste bizi naiz eta"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Jon Telleria.

5. Ingurugiro txokoa: Oria garaia,
babeztutako gunea.

6. Euskara txukuntzen: Jolastu eta
jokatu.

7. Argazki-erreportajea: Irizar
autobusak: denboran zehar
bidaiauz.

12. Erreportajea: Beasaingo
Erretiratuen etxeak 25 urte.

16. Erreportajea: Irriki Futbol
Eskola: futbolaren bidez hezi.

20. Garai batean...: Astigarretako
iturriak 100 urte.

22. Non zer?

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Jon Telleria

Hau ez da amaitu

Bigarren aldiz amaitu dute Euskal Herrian gauzatzen ari den prozesu demokratikoa Sabin Etxean eta Ferrazzen, eta ondorioz hedabide (esandakoa hedatzen duten) gehienetan etsipena zabaltzen saiatu dira. Baina, urtarrilean bezala, orain ere ez da prozesu demokratikoa amaitu. Batez ere, bera abiarazteko baldintza eta beharrek bere horretan jarraitzen dutelako.

Zapateroren legegintzaldiaren ardatza estatu arrazoiek bultzatutakoa izan da: Espainiako Estatuaren berregituraketa. Katalunian (eta Andaluzian, Valentzian...) egin zuten, lurraldetasunaz hitz egin gabe eta hangoen hitza eta erabakiari adarra jota. Berregituraketa horretan, ordea, Euskal Herrian dute harri kozkorra. Nork du erabakitze eskubidea, burujabetza? Espainiak ala Euskal Herriak?

Korapilo hori askatzeko hasten dira Ezker Abertzalearen, PSOEren eta EAJren arteko negoziazioak. Mahai gainean gatazkaren konponbiderako proposamen bakarra ezker abertzaleak jartzen du: autonomia eta erabakitze eskubidea jasotzen dituen markoaren proposamena. Ez da bestelako proposamenik izan, ez dago beste proposamenik mahai gainean. Zergatik ez dute proposamenik egin PSOEk eta EAJk? Galdera potoloa.

Espainiako Gobernua ez dago prest, segur aski, euskal herritarren erabakitze eskubidea aitortuko duen prozesurik garatzeko. Agian, uste zuen prozesuak aurrera egin ahala ezker abertzalea ahuldu egingo zela eta erabakitze eskubideari uko egingo ziola edo berdin izango zuela, ahulegi egongo zelako. Baina ez da horrela izan.

Eta Josu Jonen alderdiak? Zergatik ez du gatazkaren konponbiderako proposamenik? Agian ez delako berarentzat momentu egokia.

Nire ustez, eta aitortzen dizuet uste hutsa dela, EAJ-k bi oztopo nagusi ditu orain gatazkaren konponbidearen adeko

aktore ez izateko: Imaz buru denetik bizi duen egoera korapilatsua (EA, IU eta Aralarrekin zuen aliantzaren krisia, barne krisia, ustelkeria kasuak...) eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo duen indar eskasia.

Lehen arazoa konpontzeko udazkenean hasiko duen barne prozesua baliatuko du segur aski, nahiz eta ez den batere erraza (EA-ren azken erabakiak, etxeko botere lehia...). Bigarrenari dagokionez, agerikoa da azken urteetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik kanpo hedapen lan handia egiten ari dela. Apustu handiena Nafarroan egin du, NA-BALren eskutik. Bide-lagun izan du horretan Zapateroren Gobernua, badirudi ondorioztatu dutela orain 30 urte egindako trantsizio hark porrot egin duela eta porrotari buelta emateko orain arte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan izan duten polo autonomistaren antzeko esparru bat eraikitze beharra Nafarroan. Berriz ere, erabakitze eskubidea aitortu gabe eztabaida epe motzerako isteko tentazioa izan dezakete.

Bi arazo horiei aurre egin ezkeron egin daiteke EAJ gatazka konpontzeko prest, sortu daitekeen eskenatoki berrira indar gehiagoz iritsi daitekeelako, botere kuotarik galdu gabe. Horregatik uste dut orain bere eskura zegoen guztia egin duela EAJ-k martxoaren 24ean ETAK abiarazi zuen su-etenaekin ireki den aukerari bidea isteko.

Baina noski, nola azaldu hori euren oinarriari? Nola azaldu orain prozesua oztopatzen saiatu direla? Nola azaldu? Biolentziaren inguruko eztabaida antzuak sortuz. Publikoki ezingo dute onartu ezker abertzaleak proposatutako autonomia politikoaren proposamenari ezetz esan diotenik. Ez dut uste abertzale edo aurrerakoirik dagoenik proposamen horren aurka, eta gutxiago jakinik gatazka gainditzeko balio duela.

Erabakitze esparruen talkak bere baitan jarraitzen du eta erabakitze eskubidearen aldeko herritar kopurua inoiz izan den handiena da. Beraz, 14 hilabete hauetan asko aurreratuta du herri honek bere eskubideen berreskurapenean. Ez da eroso, ez da erraza... noski ezetz. Orain 30 urte ikaragarri zaila zen euskal herritarren eskubideak aitortzea estatuek, orain 5 urte oso zaila zen, atzo zaila zen eta gaur ez da erraza. Baina, konponbiderako proposamenik ez dutenen etsipena ez da dila herritarrongana iritsi, ez dago etsitzeko arrazoirik, gure eskubideak berreskuratzeke unerik aproposenean gaude.

Urtarrilean bezala, orain ere ez da

prozesu demokratikoa amaitu.

Batez ere, bera abiarazteko

baldintza eta beharrek bere horretan

jarraitzen dutelako.

Oria garaia, babestutako gunea

Goierriin Parke Naturalez gain, Aralar eta Aizkorri, baditugu beste babesturiko gunee garrantzitsuak. Babes maila hauetakoa bat LIC (Lugar de Interes Comunitario) da. Goierriin Oria Garaia LIC dugu Natura 2000 sarean sarturik.

Natura 2000 sareak ez du Oria ibaia bere osotasunean hartzen. Honako zatiak babesten ditu: iturburutik Segura herriaraino, 10,6 km eta 575m. altueratik 225m. altueraraino Seguran. Beste zatiak Zubin eta Amezketa errekek Orian beraien urak isurtzen duten lekua, Itsasondo herriaren ondoren, 8,9 km luzera ditu. Beste zati bat ere hartzen du Agauntza eta Zaldibia ibaiadarrak, beheko tarte Oriara isurtzen duten zatia eta Aralar Parke Naturaletik datozenak, 6,1 km eta 4,2 km dituztelarik.

LIC bezala izendatutako atala material Kretazikotik igarotzen da. Ibaiaren hasieran lutitaz eta harearriaz osaturik dago eta aurrerago margak, harearria eta kalkarriak ere aurki daitezke. Ingurureari begira bi ezberdin daitezke:

✕ Iturburutik 800m. aldapa handitik igarotzen da eta inguruan birpopulaturiko basoak daude, Alerteza, haritza *Quercus robur* eta pagoa. Ibaiaren berezko basoa osatzen duen haltza *Alnus glutinosa* nagusia delarik.

✕ Erdiko atalak. Pinua da nagusia eta harana zabalagoa da eta aldapak leunagoak. Haltzadiak ere zabaldu egiten dira eta



ibaian behera joan hala beste zuhaitz motak batzuk aurki daitezke. Lizarra *Fraxinus excelsior*, sahatsa *Salix atrocinerea*, gaztainondoa eta intxaurreondoak ere ikus ditzakegu.

Babestutako gunea Amezketa errekearekin elkartzean amaitzen da, Alegia inguruan. Uraren kalitatea ez da egokia herri eta industria isurketak direla eta.

Oria ibaiaren egoera ona gordetzen du eta uraren kalitate handiari esker arrain multzo intersgarria bizi da: Amurraina *Salmo trutta*, ezkailua *Phoxinus phoxinus*, loina *Chondrostoma toxostoma*, mazkarra *Barbatula barbatula* eta aingira *Anguilla anguilla* dira.

Natur balio nagusia **ur-ipurtatsa edo bisoi europearra** *Mustela lutreola* da,

arriku larrian dagoen ugaztun harrapakaria. LIC honek tan populazio bidegarri baten presentzia dago. Populazio hau gordetzea eta babestea oso garrantzitsua da gainerako ibaiaren zatia birkolonizatzen lagun dezake-elako, hainbat saneamendu planak uraren kalitatea hobetzen lortzen dutenean.

Ibaiaren kontserbazio egoera ez da ona. Baso eta abeltzaintzaren erabileraren presioarengatik ibai buruetan eta hirigune eta enpresena berriz erdiguneko zati-tan. Oriako ibai-korrido-reak oso zeregin garrantzitsua du Euskal Autonomi Erkidegoan, alde mediterraneanra eta atlantiarrean kokaturiko populazioen arteko loturan delako. Hau funtsezko jarduera izanik kontserbazio estrategian.

Koro Irazustabarrena

Natur balio nagusia ur-ipurtatsa edo bisoi europearra (*Mustela lutreola*) da, arrisku larrian dagoen ugaztun harrapakaria.

JAKIN BEHARREKOAK

Mongrague Parke Nazionala izendatu dute. Extremadurako lehenengoa da. Hegazti harrapari ugaltzaile dentsitate handienetarikoa Europa mailan. Bertan arrisku larrian dauden espezie ugari aurki daitezke: Zikoina beltza, Sai Beltzaren 300 ugaltze bikote, Arrano inperiala, errege Arranoa, errege Hontza, besteak beste.

Trofeo Tierra de Mujeres 2006/2007 "Bizilore"-rentzat. Bakioko Marta Txori emakume elkarteak bere Bizilore proiektuarekin Ives Rocher fundazioak ematen duen saria irabazi du. Maila eta adin guztietako emakume ezezagunen garapen jasangarriaren alde eta elkartasunaren bidea urratzen duten ekintzak ezagutzea eman nahi da. Bizilore 2005ean hasi zen eta helburu argia du: aintzinako loreak hazi nekazaritza ekologikoa eta biodinamikaren irizpideetan oinarriturik, bere jatorri genetikoak ziurtatuz. Horrela bioaniztasuna kontserbatuz eta ingurua edertuz. Baserritarren arteko hazien elkartrukea ere bultzatu nahi da. Honez gain, maiatzak 6an "lorearen eguna" ospatzen dute eta urria "haziaren eguna".

LIBURUA

"Democracia Ecologica: formas y experiencias de participacion en las crisis ambientales". Egi-leak: Barcena I. & Ecina J. Argitaratzailea: Atrapasueños, Sevilla.

Jolastu eta jokatu

Maizpide
euskaltegia

Jolastu aditza maiz-
gi erabiltzeko joera
dugula dirudi eta,
gehienetan, ez oso
txukun!

Zuzen ote dago
esanda ondorengo
esaldia?

- *Futbolean jolastu dut.*

Bada, ez! Futboleak jokatu dut behar du, lehiaren bat
dagoenean, zerbait jokoan dagoenean... halaxe behar due-
lako!

Hara nola
jolasten
naizen!



a) Zertan? Saskibaloian jokatu (=aritu), xakean jokatu
(=aritu)...

b) Zer? Dirua jokatu, etxea jokatu, futbol partida jokatu...

Jolastu, berriz, umeek (eta baita ume ez direnek ere!) egi-
ten dute, inolako lehiarik ez dagoenean:

Panpinekin, robotarekin, sokasaltoan... jolastu!

Gogoratu, bestalde, **jolastu** esateko badugula bestelako
biderik: **jolasean aritu, jolasean ibili, jolas egin...**

Eta beste zalantza bat: **jolastu naiz ala jolastu dut?**

Bada, lehenengoa da zuzena! Gogoratu, halere, arestian
aipatutako baliokideen artean, Goierri aldean maiz erabil-
tzen dugun "**jolas egin**" aukeratuz gero, honek ez duela
izan ametitzen. Beraz:

Jokatu	Dut
Jolastu	Naiz
Jolasean Aritu	Naiz
Jolasean Ibili	Naiz
Jolas Egin	Dut

**Erne, aurreko zenbakian sorginkeria izan genuen-eta!
Horrela jartzen zuen:**

*b) Aurreko astean Donostiako zinegotzi baten bisita izan
genuen Ordizian; datorren astean, ordea, alkate bera
(Odon Elortza) etorriko da.*

... eta horrela behar zuen:

*b) Aurreko astean Donostiako zinegotzi baten bisita izan
genuen Ordizian; datorren astean, ordea, alkateA bera
(Odon Elortza) etorriko da.*

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Ze, Josune, jolastuko dugu pilotan?
2. Etorri, Arkaitz, Nerearen mekanoarekin jolastuko du-
zu-eta!
3. Noren aurka jokatuko dute Zegamako bertsolariek
hurrengo kanporaketa?
4. Lehen Mailako futbol jokalaria askok "gaizki jolasten
dutela" onartzen dute.
5. Jolas pixka bat egingo al dinagu, neska? Bero-bero
nagon!

ZUZENKETAK: lehenengoa, jokatuko dugu;
bigarrenoa, jolastuko zara; laugarrena, gaizki
jokatzan dutela

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Irizar autobusak: denboran zehar bidaiatuz



Julian Apaolaza aspaldi zebilen argazki honen atzetik eta gauzak nola diren, Ordiziako denda batera praktikak erostera joan zenean bertan ikusi zuen.

Irizar anaiek egindako lehenengo autobusa, argazkian ikusten duzuenak da. 1928ko argazkia da, Ordizian, autobus geltokia ateratakoa. (Lehenengo 1929an egin zela uste zen).

Julianek kontatzen duenez, bere aita Juan Apaolaza Osinaldek, garai hartan gurdiarekin eta mandoekin egiten zituen garraio lanak. Behin Frantziara joan zen eta Renault txaxis bat

lortu zuen 9.000 pezetan truke. Ziurrenik berak gidatuko zuen Frantziatik eta Cecilio eta Joserengana (Irizar anaiengana) joan zen eta Ormaiztegin, bere autobusa karrozatzeko eskatu zien.

Lehenengo autobus hau, 1957. urtera arteko bidaiarien garraiobidea izan zen. Azoketara eta erromerietara egiten zituen bidaiak. Ez ziren gutxi izan Ezkiora egindako bidaiak, Ama Birjinaren agerpenaren ondoren.

Bere historian, gerra garaian, karrozzeria tirokatu egin zuten.

Irizarrek 1948an karrozatu zuen le-

henengo autobus erdimetalikoa, eta merkatura berrikuntza handia ekarri zuen. Ordura arte, inguruan ezagutzen ziren autobusak zurezkoak ziren.

Beti etengabeko berrikuntzan, 1950. urterako lehenengo 'rubia' egitea lortu zuen Irizarrek: rantxero estiloko furgoneta, baina bere garairako diseinu elegante eta aurreratuduna.

1953an guztiz metalikoa zen autobusa egin zuen Irizarrek, eta enpresaren egitura finkatu zuen.

1970ean, aire egokitua zuen lehenengo autobusa egin zuen, Irizar produktuen zabaltzea ekarri zuen.

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Dinam 1970

Autobus modernoa eta garai hartako merkatuan zegoenetik erabat ezberdina zen Dinam 1970. Migel Mari Irizarrek, enpresako gerente zenak, zuzendu zuen proiektua. Autobusa Mercedes O-302-an inspiratua zegoen. Autobus honi esker, Euskal Herriko karrozero izatetik Espainia mailako karrozero izatera pasatu zen. Bilbotik Madril eta Malagara bidaiatu zuen bere lehenengo bezeroari esker: Compañía de Automóviles Vascongadosek Miguel Maria Martinez. Aldi berean, bezero honek beste bat erakarri zuen: Juliá eta honek Bartzelonara zabaltzea ekarri zuen. Frantziara eta Tunisiara esportatu zuten lehenengo autobusa izan zen.



Korosti 1972

Dinam-en eboluzioa izan zen, irudi landuagoarekin eta maletategia leku gehiagorekin. Izena, autobusak transmititzen zuen sendotasunagatik jarri zitzaion.

Ezaugarri nagusi bezala, sarrerako arrapala edo aldatxoa izan zen. Horrek maletategian leku gehiago sortzea, erosotasun handiagoa eta bidaiarientzat ikuspen handiagoa ekarri zituen.

Garai hartan zegoen turismoari erantzuteko sortu zen eta 1972an Urrezko Giralda saria irabazi zuen, Espainiako autobus eredurik onenari ematen zitzaion saria.

Sari hau Irizar osatzen zuten guztiek ospatu zuten, Azpeitiko jatetxe batean.



Urepel 1976

Urepelgo Xalbador bertso-lariaren omenezko izena hartu zuen.

Aurrekoek baino diseinu biribilagoa zuen, kontsumo murriztagoarekin. Eredu honetan sartu ziren klimatizazioaren lehenengo kontzeptuak: erabat itxitako autobusa zen eta klimatizazio oso berezi batekin, aire behartua, hau da, airea aurretik sartzen zela.

Zigilatu prozesua jarri zitzaion lehenengo autobusa izan zen.





Urko 1977

Urepel eta Korostiren konbinazioa zen. Lehenengotik, kontzeptu filosofikoak eta teknikoak hartu zituen; bigarrenetik, egitura kontzeptua. Hortik izena: Urko.



Udala 1980

Bertsio xumea. Frantziako merkatuaren eskariari erantzuteko sortu zen baina oso serie mugatua izan zen, autobus gutxi egin zituzten.

Frantzian izandako arrakasta ikusita, Espainiako merkatura egokitu zen. Udala sortu zen.



Urbia 1980

Moduko preziodun produktua. Bigarren produktu bezala edo txokeko produktu bezala ezagutzen zen, Irizarrek luxozko autobusak egiten baitzuten. Baina zenbait enpresentzat garestiegia zirenez, beste aukera bat bezala sortu zen autobus hau. Kasu honetan ere autobus gutxi egin ziren.

Everest 1981

Urepelen garapena izan zen, altuagoa, itxuraz handiagoa, baina zentzuzko kostuarekin, poltsikorako eskuragarriagoa.

Autobus honek Irizarri arrakasta ugari ekarri zizkion. Besteak beste: espainiar merkatuaren konfidantza irabazi zuen; esportaziorako benetako urratsak eman ziren; frantziar merkatuaren berrestea lortu zen; Israelgo merkatuan sartu zen.

Autobus oso onartua izan zen eta Dinamen ondoren, estrategiaren, ezaugarrien... inguruko zenbait pauso baieztatu eta finkatu ziren.

20-22 urte beranduago oraindik Portugalen ikus daiteke. Klasiko bat izan da.

Autobus honekin Irizar Tianjinera (Txina) eta Irizar Maghrebetea (Maroko) lehenengo tranferentzia teknologikoa egin zen.



Dragon 1985

Irizarrena baino lehenago bi pisuko autobus asko baldin bazeuden ere, Dragon-ek mugak gainditu zituen. Garapen teknologikotik zenbait arau hautsi zituen, besteak beste, txaxisaren suspensio guztia aldatzea; garai hartan pentsaezina zen.

Gaur egun ere salduko litzateke, baina produzio sistemagatik eta kostuagatik utzi zitzaion egiteari. Txapa asko zera-man eta muntaiaren ere lan asko zuen, beraz, zegoen kompetentziarekin, ez zen errentagarri ateratzen.

Aurkezpenerako lehenengo Dragon autobusa era berezian margotu zen. Irizarreko langile batek pintorea zen lagun bat zuen eta dragoia margotzea proposatu zuen eta horrela egin zen.



Pony 1987

Esperientziaren arabera eta mikrobusaren beharra ikusita, 8 metroko autobus txikia egitea erabaki zen. Umezurtz gelditu zen, Irizarren egoeragatik eta garaiko krisi ekonomikoagatik. 200 unitate egin ziren eta proiektua ona bazen ere, mekanikoki aurrera eramateko ez zeuden nahikoa prestatuta. Beraz, mekaniko bat hartu eta denak muntatu ziren.

1991n ez zen posible izan produktu honi denbora eta maitasuna eskaintzea, eta egiteari utzi zioten.



Century 1990



1980eko hamarkadaren bukaeran, Everest zaharkitua gelditu zen eta etorkizuneko produktu berria ikertzen hasi ziren. Produktu berriari diseinua gehitzea erabaki zen eta Arrasateko Diara kooperatibari eskatu zitzaion diseinu berria. Century berritzailea egin zuten Irizarren 100. urteurrenean. Merkatu karrozeroan iraultza ekarri zuen.

Berrikuntzarik nagusienak ondorengoak dira: zigilatu prozesua, moketak kentzea, taldeko klimatizazioa, kontsumo iraultzailea... Irizarren historian iragana eta etorkizuna suposatu du.

Sari ugari jaso zituen Century-k: 1995. urteko autobusa, Espainian; Coach of the Year 1994 eta 1997, Erresuma Batuan; Industria eta Merkataritza Ministerioak emandako saria... 10.000 unitate baino gehiago saldu ditu mundu osoan Irizarrek.

Irizar PB 200 I



Munduko herrialde askotara Century-a, arrakasta itzelarekin, iritsi berria zenean, Irizarrek ikertzen jarraitu zuen bere bezeroen eta merkatuko beharrei aurre hartzeko. Emaizta, belaunaldi berriko gama altuko autobusa izan zen. 80 berrikuntza baino gehiago sartu zituen aurreko autobusarekin alderatuta. Erle langilearen aurpegiarekin eta atsegina eta altzairu karbonozko gorputz sendoa zuen.

Azken urteetako autobusik merkeena izatea; gidatu duten autobusik erosoena izatea; diseinua ez da helburua, baizik eta bere funtzioa betetzen dut; egoki orekatuta dagoenaren sentsazioa.

Irizar i4 2007



Aurtengo maiatzaren 25ean aurkeztu zen, bidaia motz eta ertai-netako garraioari begira. Bidaia-rien segurtasuna eta langileen errentagarritasuna izan dira Irizarrek proiektu honetan garrantzitsuentzat jo dituenak. Funtzionaltasuna, produktuaren eta zerbitzuaren fidagarritasuna, eta irudia bera, dira markaren bereizgarriak.

Autobusaren erabilera: gertuko herrien arteko garraioa; eskola eta enpresa zerbitzuak; hiriaren barruan turistak mugitzeko autobusa; hiri handietako perefieriak, aireportuak, eta abar.



1982ko
ekainaren 26an
inauguratu zen

Beasaingo Erretiratu etxeak, zilarrezko ezteiak ospatuko ditu

Herriko medikua bizi zen etxea mol-
datu zuten duela 25 urte, Beasain-
go, eta inguruko, erretiratu eta
pentsiodunen biltoki izateko. 840 bazki-
derekin hasi zuen ibilbidea; gaur egun, ia
1.700 bazkide ditu. Azkeneko 14 urteetan,

Erretiratu etxeko lehendakari den Mari
Karmen Bustinduk kontatu digu 25 urte-
otako historia. Ekainaren 26an, zilarrezko
ezteiak ospatuko dituzte Beasaingo Erreti-
ratuen Etxean. Egun osoko festa antolatu
dute.

AGNES IRIGOYEN
PODÓLOGA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenerik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara



Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Beasaingo Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak 1979. urtean sortu zen. Bertan sortu zen erretiratuen bilgunea izango zen leku baten sortzearen ideia. Bi urtera, errealitatea zen Erretiratuen Etxea. 104 bazkide-rekin jarri zen Elkarteak martxan.

Elkarteak sortu eta sei hilabetera, Udaletxeko Osasun eta Gizarte Arloko zinegotziarekin elkartu ziren, Erretiratuen Etxe berria eraikitzeko asmoa mahai gainean jarri. "On Cesareo Ugarte, Jose Moreno, Jose Maria Kerejeta eta Victorio Castellano izan ziren sustatzaileak. Juanito Lasa orduan diputatu zegoen eta guztien artean sortu zuten", gogoratu du Mari Karmen Bustindui, Erretiratuen Etxeko lehendakaria.

Herrian bazen Erretiratuen Etxe bat, CAFek bere langile ohientzat sortua. 1962. urtean sortu zen. Herriarrek bertan sartzeko aukera baldin bazuten ere, txiki gelditzen zen askotan. Batez ere gizonezkoak joaten ziren.

Udalak begi onez ikusi zuen erretiratuen proposamena eta gaia aztertzeari ekin zioten, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Matia Fundazioarekin batera.

Egoitza egiteko lekua izateko aukera bat baino gehiago aztertu ziren, baina azkenean, medikuaren etxea izan zen, bi urte lehenago hutsik gelditu zen, Erretiratuen Etxea egiteko aukeretan egokiena.

Etxea bera txukundu eta egokitu, eta handitu ere egin zen. Mendi aldera, Erresidentzia aldera, luzatu eta handitu zen eraikina.



Ekintza ugari

Herrian ondo txertatuta dago Erretiratuen Etxea eta ekintza ugari antolatzen dituzte. Ekintza ezberdinak. Tailerrak, mendi irteerak, txangoak, oporrak, yoga... Eta jendeak ondo parte hartzen du ekintzetan Mari Karmen Bustindui adierazi digunez. "Ganbaran ematen ditugu tailerrak. Taila, hari lanak, pintura eta yoga dira arrakastarik gehiena dutenak". Hori bai, arrakastarik handiena, urtean zehar, egoitzak egiten dituzten luntxak izaten omen dira.

20 milioi pezetako aurrekontua izan zuen egokitzeko lanak eta Eusko Jaurlaritzak hartu zuen beregain kosturik handiena; hirutik

bi. Gainerakoa, Beasaingo Udalak ordaindu zuen.

Garai hartan, mantentzen zirela dagokionean, urtean, bi milioi pezetako gas-

tua aurrikusten zen.

Behin lanak bukatuta, 1982ko ekainaren 26an inauguratu zuten Erretiratuen Etxea.

Inaugurazio eguneko irudiak eta kronika biltzen dituen dvd-a dute Erretiratuen Etxean. Bertan ikusi eta entzun daitekeenez, eguna hasteko, goizeko 11,30etan, meza izan zen Andre Mari Zeruratuaren Parrokian. Irteeran, herriko dantzarien agurra eta saioa izan zen. Handik Erretiratuen etxera joan ziren.

Erretoreak hartu zuen

1979 ■ **urtean sortu zen**
Beasaingo Jubilatuen eta Pentsiodunen
Elkarteak. Bertan sortu zen
erretiratuen bilgunea izango zen leku bat
sortzearen ideia.

Goierritarra

943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info

San Inazio, 14 BEASAIN
 ☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
 ☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
 ☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak



14 urtez lehendakari

Mari Karmen Bustindui gazte alargundu zen eta gazterik hasi zen Erretiratuen Etxera joaten. Duela 14 urtetik hona, bera da Beasaingo Erretiratuen Etxeko lehendakaria. “Galdetzeagatik nago ni hemen. Batzarrean “presidente, presidente” galdetzen ari ziren eta nik eskua altxatu eta galdetu nuen ea emakumezkoek ezin zuten lehendakari izan. Ez emakumezkoak ere bai. Eta ni izendatu ninduten. Orduan, parrokian, haurrei katekesia erakusten ari nintzen. Pentsa ze ezberdintasuna. Baina orain arte gustura ari naiz”, adierazi du beasaindarrak.

Gustura ari bada ere, erreleboa eskatzen ari da Mari Karmen. “Sartu nintzenean, Zuzendaritza batzordean 11 ginen, eta azkeneko hiru urtean 6 besterik ez gaude. Eta gutxi da. Ia egunero etortzen gara hemengo lanak burutzera, beti dago zerbait egiteko”, gaineratu du. Mari Karmen Bustindui bera eta, Margari Urizar, Presen Bustindui, Josexo Orbezabal, Agustin Larrea eta Juanxto Epaizabal dira zuzendaritza batzordea osatzen dutenak.

lehenengo hitza eta etxea bedeinkatu zuen, ‘Jauna, onetsi etxe hau’ esanez. Osasun onean, bake giroan eta lagunarte jatorrean bertako zerbitzuak aprobetxatzeko esan zien bertaratu zirenei.

Juanito Lasa beasaindarrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua zen orduan, ere hitza hartu zuen eta honelaxe esan zuen: “bazen ordue eta ordue ailegatu da”.

Adinekoen biltokia

Herriko, eta inguruko, erretiratuak eta pentsiodunak bitzeko tokia izan nahi zuten Erretiratuen Etxeak. “Adinekoak elkartu eta arratsalde pasa etorri zitekeen leku bat izatea zen helburua”, adierazi du Bustindui. Dena den, Jubilatuen taberna hutsa baino gehiago izango zen Erretiratuen Etxea: bakoitzaren balioak eta beharkizunak beteko zituen ekintzak egingo ziren lekua. “Kartetan jolastu, tailerrak, otorduak, irteerak... gaur egun egiten diren antzeko ekintzak ziren ordukoak ere baina gaur aukera zabalagoa dago”, zehaztu du beasaindarrak.

Zerbitzu ugari eskaintzen dira Erretiratuen Etxean, guztiak ere prezio eskuargarriagoan edo merkeagoan. “Garai hartan erretiratuen ekonomia kaskarra goa zen”. Ileapaindegi zerbitzua adibidez. “Masaje

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✖ Tximini eta ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak

zerbitzua ere eskaintzen hasi ziren baina jendeak pentsatzen zuen kuotaren barruan sartzen zela zerbitzua eta kendu egin zuten”, azpimarratu du Mari Karmen Bustindui.

Edozein elkarte gastro-nomikotan bezala, “sukaldea eskura izaten dute otorduren bat prestatu nahi badute. Lehen garai batean otordu asko egiten ziren baina gaur egun galdu egin da ohitura hori”, dio.

Irigarritasuna

Mari Karmen Bustindui dioenez, Beasaingo Erretiratuen Etxea bezalako gutxi omen dago inguruan; dena den, koskatxo bat badu gainditzeko, oraindik ere ederragoa bihurtuko lukeena: irigarritasun arazoa konpontzea. “Aldapak eta eskilarak daude bertara etortzeko Baina Udaletxetik hitz eman omen digute, igogailua jarriko dutela, Urbialde plazaraino”, azpimarratu du beasaindarrak.

Zailtasunak zailtasun ordea, beasaindar zaharrenak gustura joaten dira egoitzara. Ia 1.700 bazkide ditu Elkartea eta osasuntsu dago.

Bakoitzak, urtean, 10 euroko kuota ordaintzen du. “Oso kopuru ona da. Inguruko jendea ere badaukagu elkartearen. Lazkaokoa, Ordiziakoa... Zergatik? Ekintza gehiago ditugu eta nik uste dut soziableagoak garela”. Inguruko Elkarreetan bigarrena izan zen sortzen Beasaingo Bustindui eman dako datuen arabera. Lazkaon lehentxeago hasi ziren.

Erretiratu berriak ere inguratzen dira Erretiratuen Etxera. “Gaur egun, jendea lehenago jubilatzen da, osasuntsuago. Bizimodua ere asko aldatu da. Gaur egun jendea oportetara gehiago joaten da. Lehen jubilatua, jubilatuta eta hemen gelditzen zen, etxean... Garai hartan 65 urtekoak zaharrak ziren, gaur egun, gazteagoak gara. Askok aldatu da, onerako noski”.

Gazteenek, batez ere, irteeretan eta oportetaren parte hartzen dute. “Tailerretan ere bai, oso gauza politikak egiten ditugu eta”, zehaztu du. “Dena den, orokorrean, zaharrenak dira gehien parte hartzen dutenak. Oso esker onekoak dira gainera”.



Ekainaren 26an egun handia

Urtero ospatzen dute Erretiratuen etxea sortu zeneko eguna. Aurtun, modu bereziagoan ospatuko dute, 25 urte ez baitira egunero betetzen.

Ondorengo egitaraua prestatu dute:

11:30etan: meza nagusia izango da Andre Mari parrokiaren. Besteetan Erresidentzian egiten dute, baina aurtun jende gehiago espero dute.

12:30ean: Lehiaketa ezberdinetako irabazleei sariak banatuko zaizkie.

Ondoren: luntxa izango da.

Arratsaldean: dantzariak izango dira eta Erretiratuen etxeko bi zaharrenei eta sortzaileen sendiartekoei oroigarri bana emango diete.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

“Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobekak”



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sa. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



kutxa

Irriki Futbol Eskolaren eskutik:

Zazpigarren ikasturtea jarriko du abian Irriki Futbol Eskolak datarren irailean. Berrikuntza nagusi bat izango du gainera: orain arte Seguran aritu izan badira ere, aurrerantzean Ordizian kokatuko da Irriki Futbol Eskola. 6 eta 10 urte bitarteko Goierriko hurrek, neskek, mutilek, etorkinek zein ezinduek,

futbolaz eta bizitzako jarrera egokiez ikas-
teko aukera dute. Futbola heziketarako
tresna baita Irriki Futbol Eskolan. Ordizia-
ko Irriki Kultur Elkarteak da ekimenaren
bultzatzailea eta 6 urte hauetako emaitza
onak azpimarratu nahi izan dituzte.
Matrikula irekita dago:
www.irrikifutboleskola.com.


GUKlan
BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



2000. urteko irailean hasi zuen bere ibilbidea Irriki Futbol Eskolak. Ordiziako Irriki Kultur Elkarteko hainbat bazkidek sortutako ekimenak, elkartearen izena hartu zuen. Ordiziako elkarteak izanagatik dena den, Segurako azpiegiturak erabili izan ditu aurten arte. “Irriki Ordiziakoa izanda, Ordiziarako ekintzak egitea du helburua. Baina orain arte ez da posible izan Ordiziako azpiegiturak erabiltzea erakundeek baimenik eman ez digutelako”, argitu du Juan Carlos Garcia Irriki Futbol Eskolako zuzendari teknikoak.

6 urteotan Irriki Futbol Eskolak egindako lanari esker dena den, Foru Aldundiak ateak ireki dizkio Irriki Futbol Eskolari. Ekainaren 14an egindako bileraren ondoren, Ordiziako futbol azpiegiturak erabiltzeko baimena izango du Irriki Futbol Eskolak. “Gertutasunagatik guretzat egokiagoa da. Seguran oso gustura egon gara eta eskerrak eman beharrean gaude”, gaineratu du Garciak.

Heziketarako tresna

6 eta 10 urteko Goierriko haurrek har dezakete parte Irriki Futbola Eskolan. Eskola irekia da: futboleko abilagoak edo baldarragoak diren guztiek dituzte irekita ateak; neskek, mutilek, etorkinek, ezinduek. Datorren ikasturtean adibidez,



Jandro futbolari obiarene begiradapean ari dira entrenatzen, Seguran.

Goierriko futbolaren harrobia

2000-2001. ikasturtean, 30 haurrekin sortu zen Irriki Futbol Eskola. Urteren batean 150 haur ere ibili izan dira. Agustin Ezenarrok emandako datuen arabera, “hasieran 6 eta 12 urte bitartekoentzat zen eskola, baina orain klubek hartu dute 11 urtetik gorako haurren ardura. Beraz, aurtengo denboraldian, 80 neska-mutiko ibili dira”. Tartearen, hamar bat neska ere ibili dira Futbol Eskolan.

Irriki Futbol Eskola Goierriko futbol taldeen harrobia dela esan liteke. “Infantil eta kadeteetan Futbol Eskolan ibilitakoak dira. Gehienek futboleko jarraitzen dute. Goierri mailan, denak jokatzeko ari dira Ordizian, Beasainen eta Lazkaoan. Realean dabilzan pare bat badaude, Athletic-era joan eta etorritakoa ere bai”, zehaztu du Juan Carlos Garciak. Juan Carlos Garciak gaineratu duenez, “federatzeko garaian iristen zaienean, klubetara uzten ditugu”.

Irriki Futbol Eskolak diotenez, “Irriki Futbol Eskolaren filosofiarekin, futbola ikasten dute, eta oso ondo. Gero klubetara aukeratuak izaten dira. Umeak defenditzera joatea ere egokitu zaigu. Delikatua da. Umea ez dago egina, pertsonalitate bezala”.



Sanperio
kalea
ORDIZIA

Ogi berria
egun guztian
zehar

Bertako produktu naturalak

Tartak enkarguz,
probatu gure 'Bixigua'

Baserriko
produktuekin
egindako
gosariak



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretx:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Adimen eta izaera gaitasunak; osasun eta ahalmen fisikoa, psikomotrizitate inteligentea, inteligentzia emozionala, jarrera mentala, talde kohesioa eta lehiakideekin kohesioa lantzen dira.

2002. urtean jaiotakoek eman dezakete izena.

Heziketarako tresna dute futbola Irriki Futbol Eskolan. “Taldeko eta taldeen arteko kirola delako, futbola aitzaki eta tresna bezala hartuta, ditugun helburuak lantzeko bidea erraztu egiten zaigulako”, adierazi dute Juan Carlos Garcia Irriki Futbol Eskolako zuzendari teknikoak eta Agustin Ezenarro Irriki Futbol Eskolako giza baliabideetako ardura-dunak.

Bizitzako arauak

Futboleko arauak, teknikak... ikasteaz gain, eguneroko bizitzako jarrera egokiak lantzen dituzte. “Futbola irakatsiz, beste zenbait abildade eta balore lantzen dira. Ikusita zein motibazio daukaten neska-mutilek, bidea eginda dago. Ikasturte hasieratik bukaerara, asko hobetzen dute. Harrigarria da. Arazoak dituztenak-eta, zein konplizidade hartzen duten. Ez da bakarrik, indarra eta osasuna, ulertzen den bezala; nolabaiteko intelentzia garatzen da: espazioan mugitzen, elkarrekin, mugimenduak asmatu... hau guztia ez dute bakarrik asmatzen, osotasun batean baizik: ni, baloia, taldekideak, aurkariak”, zehaztu dute.

Entrenamenduetan adimen eta izaera gaitasunak; osasun eta ahalmen fisikoa, psikomotrizitate inteligentea, inteligentzia emozionala, jarrera mentala, talde kohesioa eta lehiakideekin kohesioa lantzen dituzte. “Ez da aspektu taktiko eta tekniko bakarrik lantzen. Ez da ahalegin berezirik egin behar hori lortzeko, berez, lantzen dituzte. Futbolak dituen osagarri guztiak zoragarriak dira. Espazio mugatua, arau batzuk daude, lagunak, aurkariak, zenbait kondizionante, egun batean euria, egun batean eguzkia... gu ere ez gaude beti berdin. Ikasten

duzu barruko emozioak kontrolatzen”, gaineratu dute.

Futbolari onak sortzea baino helburu nagusiagoa badu beraz Irriki Futbol Eskolak: pertsona onak sortzea. “Neska-mutil asko zeuden jokatzeko gogoarekin eta ukatuta zeukaten. Klubek aukeratutako izarrrak bakarrik eta beste guztiak kanpoan. Diputazioko Kirol sailetik debekua ere egon da futbola erakusteko. Beste kirol batzuk bai, baina futbola ez, zergatik? Mundu berezi bat delako futbolarena, interes eta diru asko mugitzen baita. Eta normalean, futbol eskolak, fabrika moduan izaten dira, futbolari oso onak lortzeko, gero saltzeko”, azpimarratu dute Futbol Eskolakoek. “Guk haur bati ez diogu esaten gure eskolan ezin duela egon, futbolekin txarra delako, alderantziz baizik. Futbolekin ideiarik ez duenari futbolekin erakutsiko diogu eta erakutsiko diogu, futbolarekin beste gauza batzuk ikasten”, gaineratu dute Irrikikoek.

Etorkinak

Etorkinak integratzeko tresna egokia ikusten dute Irrikikoek Futbol Eskola. Oso esperientzia onak dituzte. “Futbol Eskolan etorkinak talde bateko kide dira eta hori oso garrantzitsua da beraientzat; euskararekiko lotura erraztu egiten dute; umeei zubilana egiten dute, beraien gurasoak beste enekin harremanetan jartzeko; aukerak sortzen dira; onartuak dira; batek lana besteari esker lortuko du... Hartueman oso aberatsak dira. Urte hauetan, esperientziak hori azaltzen du”.

Etorkin gehiagorekin lan egin nahiko lukete Irrikikoek baina haur hauei zail egiten zaie askotan, matrikula eta hilero 30 euro ordaintzea. Baina Irrikiri ere ezinezkoa zaio kostu hori bere gain hartzea. “Hemengo

agintariek apustu bera egin-go balute, zenbait laguntza bide mugitu daitezke, haur horiek parte hartzeko. Guk ume asko hartzen baditugu, begirale gehiago behar ditugu, begiraleek beraien zatia behar dute, eta ezinezkoa egiten zaigu, hau ez da enpresa bat eta. Helburua da haurrei jolasteko aukera ematea eta jartzen den kuota, gastuak ordaintzeko da, besterik ez. Bailaran badaukagu tresna bat, 6 urte daramazki eta oraindik, ardura duten horiek ez dira jabetu edo ez dut ulertzen...”, zehaztu du Ezenarrok.

Irriki Futbol Eskolatik azpimarratu nahi izan dutenez, “ez daukagu inolako laguntzarik inongo erakundeetatik. Haurrek ordaintzen duten matrikularekin eta hileroko kuotarekin egiten dugu aurrera”.

Ekainetik urrira bitartean izaten da matrikula egiteko aukera. Matrikula egitearekin batera, haurrek hain estimatua duten futbol kamiseta berdea, praka txuriak eta galtzerdi gorriak ematen dizkiete.

Partidurik ez

Futboleko ikasiz hezten dira Irriki Futbol Eskolara doazen haurrak. Entrenamenduetan, euren arteko partidatxoak jokatzen dituzte, baina ez dute gainerako lehiaketetako partidurik jokatzen. Hori bai, urtero, Miarriztera joaten dira. “Hegoaldeko eta Iparraldeko haurrek parte hartzen dute. Entrenamendua egin eta beraien artean jokatzen dute partiduren bat edo beste. Festa giroan aritzen dira”, zehaztu dute Garciak eta Ezenarrok.



Goiko argazkian 6-7 urteko futbolarien taldea eta bebeokan 8-9 urtekoena.



Filosofia horrekin, partiduetan sortzen diren lehiak baztertzen dituzte, eta gurasoen eraginak ere bai. Irriki Futbol Eskolakoek emandako datuen arabera, inguruan ez dago horrelako filosofiarik eta helbururik duen Futbol Eskolarik.

Ez dute lehiaketetako partidurik jokatzen. Filosofia horrekin, partiduetan sortzen diren lehiak baztertzen dituzte, eta gurasoen eraginak ere bai.

Z

Zunzunegi

0inetakoak

Hirigoien, 8A
LAZKAO

943 087 913

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.
BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



Astigarretako iturriak eun urte



*Astigarretako illerrian,
kanposantuan, panteoi bat bere
familiarantzako; horrez gainera,
Mandubitik Astigarretako kalzada
egin zuen, eliz orman dagoen
idazkiak dionez.*

Eun urteurrenak berritzen dira aurten, Astigarretan, bi personai edo, obeto esanda, bi personai auen ekin-tzak gogoratzeko: Prantziska Urkia eta Julian Peñagarikano izeba illobak. Ez dakigu Prantxika au zein baserritan jaio zan, bere illoba Julian Agerre Bekoan jaio eta azi zan. Garai aietan Agerren lau baserri ziran; oietako batean, Peñagarikano familian, aizpa bat zuen Prantxikak ezkondua.

Prantxika auzoko mutil batekin maitemindu eta nobio izatera iritxi ziran, eta maitasuna oso sakona izan bear zuen, dirudienez, neskatxaren aldetik behintzat. Egun batean, Amerikara joan bear zuela adierazi zion mutillak andregaiari; eta an bientzat bizitzeko modurik egiten bazuen, deituko zio-la, etzuela aztuta utziko.

Urte batzuetara deitu zion bere kontura asi zala eta nai bazuen joateko, bere zai egongo zala. Onela, joatea erabaki zuen neskatxak. Garai aietan Argentinak ospe aundia zuen mundu mallan. Euskal Erritik gazte asko joaten zan bertara. Itxasontzia iritxi zanera-ko izugarrizko jende pilla omen zegoen Buenos Airesko portuan; ontzitik jetxi eta an joan omen zan neskatxa mutillarengana laixterka batean, eta ezustekoa: ea zer nai zuen beregandik,

etzuela ezertarako ezagutzen. Neskatxa garraxi batean utzi eta jende artean izkutatu eta gehiago ez omen zuen ikusi eta bere berririk jakin.

Gizon bat urreratu omen zitzaion neskatxa gaxoari, egoera tamalgarri artan ikusita: neskame billa zebilella eta bere etxera eraman zuen. Gizon au italiar jatorriko gizon oso aberatsa omen zan, eta seme alabarik etzuen alarguna.

Urte batzuetara Prantxika berarekin ezkondu zan, baina seme alabarik etzuten izan. Onela, urte batzuek geroago, bere aizparen semea eraman zuten, au zan Julian. Hamabost urte omen zituen Amerikara eraman zutenean, eta an eskolatu zutela zioten, baña etzuten esaten ze karrera egin zuen. Mutil gaztea zala, bankuak rekisatutako bi barku tabako omen zeuden oso merke, subastan salgai, eta Julianek osabari esan omen zion dirua balu erosiko zituzkela barku oiek eta onek diruagatik bazan erosteko esan. Baita erosi ere. Tabako orren saldu erosian irabazitako diruarekin aberastu omen zan, eta osabarenak ere berarentzat izango ziran, dirudienez. Onela, Astigarretara joan etorri bat baño gehiago egin zituen. Bera zetorrenean, Beasainen, estaziora banda ateran-

tzen omen zitzaion, eta ontzako urre bat izaten omen zan auentzako saria.

Jaiotetxeko anaiari nai zuen tokian etxea erosteko esan omen zion. Onek bere etxea erosi nai eta, onela, bizi zan etxea erosi, eta etxe berria egin zuten, Agerrin, len zarra zan lekuan: onez gañera, Astigarretako illerrian, kanposantuan, panteoi bat bere familiantzako; horrez gainera, Mandubitik Astigarretako kalzadara egin zuen, eliz orman dagoen idazkiak dionez.

Bere izeba Prantxikak ura errira ekarri zuen, eta erropa garbitzeko ur aska ederra egin. Pentsatu erriarentzat zer izango zan lixiba egitera errekarra joan bearra eta ura bizkarrean ekarri bearra zuen Astigarreta bezelako toki batean.

Astigarretan, aurtan, eun urte urrena gogoratuz, zaar-akituta zegoen ur askari beritua eman diote. Merezi du alako estalpe eder batek zaitzea. Eskerrik asko astigarretarrai. Nik onelako ekintzei esango nieke maitasuna. Beren etxea eta erria hainbeste maite izan zituzten pertsonak hainbeste urte igarota aitamen bat merezi dutelakoan, lerro auk idaztera ausartu naiz. Guzti au amona zanari entzuna det, orain dala irurogeita gehiago urte. Berak eta aitatu degun Julianek bein baño geiagotan bazkalduko zuten elkarrekin.



Nere aitonaaren anai bat ez-kondua zen Julianen iloba Teresarekin. Orregatik naito gertutik ezagutu zuen.

Oneraño gure amonaaren kontakizunak.

Nik onela galdetu izan nion:

Nola diteke maite izandako pertsona bat Euskal Erritik Buenos Aireseraño eramane, euren artekoa bukatutzat emateko? Onelako ankerkeriarik ezin diteke onartu. Beste aldetik, alar-gun aberatsak portura joan bearra ote zeukan neska-meak billatzeko? Gertakizun oni nik, nere aldetik, diruaren mamua edo amua aurkitu izan diot.



Jose Inazio Lasa Odriozola

Oarra:

Norbaitek baleki zerbait gehiago gai onetaz, edo okerrik balego, Garinen aurkituko nau zuzentzeko prest.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZUBI. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Ordizia

Otegi-eneako
San Joan jaiak

Ekainak 22, ostirala:

18:00etan: Txupinazoa.

18:00etan: Krosa, haurrentzat.

19:30ean: Buruhandiak.

20:00etan: Afari herrikoa.

22:00etan: Dantzaldia.

Ekainak 23, larunbata:

10:30ean: Txupinazoa.

11:00etan: Marrazki lehiaketa.

12:00etan: Koadrila arteko I. Sukaldaritza lehiaketa.

12:30ean: Pailazoak.

13:30ean: I. Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa.

16:30ean: Haur jolasak.

18:00etan: Euskal dantzak.

19:30era: Sardina jana.

20:30ean: Buruhandiak.

22:00etan: Dantzaldia.

23:00etan: Mozorro lehiaketa.

Ekainak 24, igandea:

10:30ean: Txupinazoa.

11:00etan: Koadrilen arteko II. Sukaldaritza lehiaketa.

13:00etan: Laguntasuna Errondaila.

14:00etan: Koadrilen arteko II. Sukaldaritza lehiaketako sari banaketa.

16:30ean: Toka lehiaketa.

18:30ean: Gorriti eta bere animaliak.

20:30ean: Buruhandiak.

21:00etan: Festen amaierako txupinazoa.

Beasain

Arriarango San Pedro jaiak

Ekainak 29, ostirala:

11:00etan: Suziriak eta buruhandiak.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Omenaldia herriko agure zaharrenari, dantzari eta guzti.

14:00etan: Herri-bazkaria. Bertsolariak: Millan Telleria eta Angel Larrañaga.

Ondoren: Dantzaldia Kupela taldearekin.

17:00etan: Mus eta puntu txapelketak.

21:00etan: Herri-afaria, bertsolari eta trikitilariekin.

Ekainak 30, larunbata:

16:00etan: Haur jolasak.

17:00etan: Pilota partiduak.

18:30ean: Herri kirolak: Inaki Azurmendi-Angel Arrospide eta Floren Nazabal-Juanjo Erdozia aizkolariak.

21:00etan: Herri afaria.

Ondoren: Xapre trikitilaria, goizaldera arte.

Uztailak 1, igandea:

10:30ean: Meza Nagusia.

11:00etan: Loinatz abesbatzaren kontzertua.

18:30ean: Herri kirolak.

12:00etan: Hamaiketako herritarrentzat.

Ezkiagako San Pedro jaiak

Ekainak 28, osteguna:

11:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:30era: Puzgariak Oriako pasealekuan.

19:00etan: Buruhandiak eta txistulariak.

20:00etan: Sardina eta txistorra jana.

Ataun

Santa Ixabel jaiak, Aian

Ekainak 29, ostirala: Umeen eguna:

16:30ean: Haurren jolasak, Eriz magoarekin. Ondoren: Txokolate jana.

21:00etan: Afaria Txiste kontalariarekin.

23:30ean: Gari eta Inaki trikitilariak goizaldera arte.

Ekainak 30, larunbata: Gazteen eguna:

18:00etan: Irrintzilari eta Adar-joleen saioa, Lazkao Txiki Eskolarteko trikitilariak alaituta.

19:30ean: Sardina jana eta sagardo probaketa.

21:00etan: Gazte afaria.

Ondoren: Kontzertua: Thee Brandy Hips eta beste talde bat.

24:00etan: Trikitilariak Aiako plazan, Epelde eta Lurtxunditxo.

Uztailak 1, igandea:

11:30ean: Lazkao Txiki Eskolako trikitilariak.

12:30ean: Pilotariak.

17:30ean: XXII. Dantzari Txikien txapelketa (mugatu).

19:00etan: Aizkolariak: Arria II-Agite Mendizabal II-Aierberen aurka.

23:00etan: Katxo eta Xanti trikitilariekin gau giro Atsegina.

Uztailak 2, astelehena: Santa Ixabel eguna:

10:30ean: Meza Nagusia.

11:30ean: Ataungo dantzariak. Ondoren hamaiketako.

12:30ean: Mendiluze eta Mendizabal bertsolariak; eta Maitane eta Aiora trikitilariak.

14:00etan: Herri bazkaria.

18:30ean: Bertsolarien bigarren saioa, trikitilariak alaiturik.

19:00etan: Toka txapelketa.

Ondoren: Jaien amaiera.



A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



680 641 401

676 952 968

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak

Nazaret zentroa

www.nazaretzentroa.com - Aldakoenea, 36 - B° Egia
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384



Irakaskuntza ertain
eta lanbiderakoak
Enseñanzas medias
y profesionales

Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

Ikasgaiak euskaraz,
erdaraz eta ingelesez
ematen dira



Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- 1 Administrazioa eta Finantzak
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- 1 Administrazio-Kudeaketa



kutxa, lankidetzako gizarte ekintza

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Pisu bila nabil, alokairuan.
943180119.

errentan eman

Goierri 2 logelako pisu berria alokatzen da. 669827096.

Jakan apartamentua alokatzen da udan, igerilekuarekin. 607284009.

Jakan, apartamentua, igerilekuarekin, alokatzen da, uztail eta abuztuan. 676615361.

Errioxako kanping batean karabana alokatzen da. Guztiz erosoa. 669706870.

Jakan, apartamentua alokatzen da, udan zehar, igerilekuarekin. 943216684 - 943885674.

salgai

Ataun. 60 m², berritua, prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. Gela bateko apartamentua salgai. Erabat berritua. 26.000.000 pezeta. 669827096.

Beasain. Ezkiaga etorbidean, 103 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, ganbara eta garajea. 661079053.

Beasain. Errekarte kalean, 65 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasain. Erdigunea. Dekorazio polita. Altzairuz hornitua. 2 logela, komuna, sukalde handia, egongela, balkoia eta trastelekua. Oso prezio interesgarria. 648055688.

Beasain. Erdigunean. 82m²ko etxebizitza. Eguzkitsua, igogailua, trasteleku handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabal. 85 m². Oso eguzkitsua. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta balkoi handi bat. 25 m²ko garaje itxiarekin. Oso egoera ona. 228.000 euro. 648055688.

Idiazabal. Eraikuntza berria, 3 logelako azken etxebizitza salgai. 47.000.000. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. San Jose kalean, 60 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Berritua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Laister eraikuntza berriak. Apuntatu zaitez. LAZKAO INMOBILIARIA.

Ormaiztegi. Ibili gabeko 6 urteko etxea salgai. 2 logela (bat jarrita), egongela, bainugelak, sukaldea (jarrita) terraza eta lorategia. 695780056.

Segura. Berritutako atiko zoragarria salgai. 2 logela, komuna, sukaldea eta saloia. Oso prezio interesgarria. 648055688.

Urretxu. Udaletxe inguruan, 2 pisu salgai. 29.000.000 pezeta. 669827096.

Zaldibia. 2 logelako pisu polita salgai, oso eguzkitsua. Apartalekua eta lorategia. 198.000 euro. 648055688.

Altsasun etxebizitza berria salgai. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, 3 komun eta 14 metroko trastelekua. 37.000.000 pezeta. 665725265.

BESTELAKOAK

salgai

Egurrezko mahai sendoa salgai, banku eta aulkiekin. Egoera onean. 690311342.

Piano zahar bat salgai. 943187537.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Egurrezko mahai handi bat eta txikiak salgai. Baita banketak ere. Prezio onean. 943084546.

Burstener karabana salgai. Bi ohe handi eta 80-ko litera. Komuna eta bi abanzerekin. Egoera oso onean. 3.700 euro. 665705337.

Trialeko Sherco motorra salgai. 209 cm³. 2004 urtekoa. Egoera ezin hobean. 2.900 euro. 649704743.

Arraindegi, harategi eta abarretarako baskula salgai. 15 kilora arte. 615709493

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



943 162 393

Goxoki denda
alokatzen da Lazkaon

AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala
zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 solairuartea, Beasain
www.ikaskide.net
943 160 120
685 722 403
675 006 462

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

ERREKUPERAZIOAK

IKASKETA TEKNIKAK

INFORMATIKA, MEKANOGRFIA

INGELERA IKASTARO TRINKOAK:

Goizez eta arratsalde / Maila guztiak / PET, First Certificate, Advanced

UDA
2007

2007-2008
matrikula zabalik

LANA

eskaerak

Zerbitzaria behar da Beasaingo Arrano tabernan. 943887447.

Esperientziadun pertsona euskalduna behar da lehenbait lehen kafetegi-okindegi batean, kontratuarekin lan egiteko. 629857484.

Idiazabal inguruko pertsona bat behar da, astean 6 orduko lana burutzeko. 629835340.

Esperientzia duten zerbitzariak behar dira jaietan, Zumarragako taberna batean lan egiteko. 617771356.

Ingeniari teknikoa edo apa-rejadorea behar da. Euskalduna eta lan arriskuen prebentzioan goi mailako teknikaria. teknika@segurtasuna.net

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu Zumarragan. 655718192.

Ileapaindegi batean lan egiteko pertsona bat behar da. Bidali kurrikuluma 140 posta kutxara (Ordizia).

Beasainen neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Arratsalde, 16:00etatik 20:00etara. 650204836.

Neska euskalduna behar da Beasaingo taberna baterako. 678014223.

Idiazabalen neska bat behar da zerbitzari lanetarako. 650412119.

eskaintzak

Banatzaila eta pintura pe-oia eskaintzen da. 696228093.

30 urteko, paperik gabeko gizonetako etorkin hegoamerika-rra eskaintzen da ostalaritzan, baserrietan, komertzioetan... lan egiteko. 619821216.

Neska euskalduna, magisteritza ikaslea, abuztuan partikularrak emateko (Lehen Hezkuntza) edo haurrak zaintzeko eskaintzen da. 658523160.

Tarot kontsultak. 943766214.

GARAJEAK

errentan eman

Dulce Maria Loinaz (Beasain) etxaldean 27 m²ko gara-jea alokatzen da. 677680390.

salgai

Legorreta. Neurri ezberdi-netako garajeak. LAZKAO INMOBILIARIA.

IBILGAILUAK

salgai

Volkswagen T3 Joker 1.6 TD salgai. 1986koa. Dena berri-ritua. Bi urte dituen motorra 18.000 km-rekin. Berezko Westfalia ekipamendua. 675702241.

Goierriarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierriarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

LAZKAO



Jaunartzeak Ormaiztegin 1947. urtean

Atzeko ilaran ezkerretik eskuinera: (Jaunartze handikoak, 12 urte) Lontxo Iurrita, Antonio Mujika (Aranguren), Joseba Urkiola, Gaspar Insausti (apaiza), Joxe Mari Mendizabal, Joxe Domingo Iurrita (Sosoagazabal) eta Xabier Baztarrika.

Erdiko ilaran: (Jaunartze handikoak, 12 urte) Modestina Zumarraga (katekista), Maria Jesus Iurrita (Telleriarte), Nieves Kanpos, Maria Luisa Berasategi (Sosoaga Txiki), Maritere Irizar, Manoli Berasategi (Itxune) eta Maria Leturia (katekista).

Aurreko ilaran: (Jaunartze txikikoak, 7 urte) Maria Jesus Elorza, Sofia Muguruza, Mari Karmen Mendarozketa, Maribel Astigarraga, Juanita Berasategi eta Arantxa Mendizabal.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGO A

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)




Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com

auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



2007ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZEA,
ALFABETATZEA eta EGA.

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra
(08:00-13:00)

Irailaren 3tik 28ra,
(19:00-21:00, EGA prestatzeko)

Matrikulatzeko epea
Ekainaren 4tik 22ra



www.udaleuskaltegiak.net

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

San Martin plaza z/g, kultur etxea. 20200 BEASAIN
Posta-E: zuzendaritza@beasain.net T 943 082 100

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-12:00
Arratsaldez: 14:00-18:00

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

A photograph of the exterior of the Barandiaran Zeramikak store at night. The building has a modern facade with large windows and a prominent neon sign that reads "BARANDIARAN zeramikak". Below the main sign, there are smaller signs for "ERREF. MAK", "DISEINUAK", "PROIEKTUAK", "BAINUAK", and "HIDROMASAJ". The store is illuminated by warm interior lights and exterior spotlights.

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626



Perspektiba, usaimena,
platerak, estetika, ura,
aulkiak, txipiroiak, lerroak,
hozkailea, lorea, koloreak,
mahatsak, edalontziak,
bolumena, mantala, labea,
dastamena, geometria,
botila, tomateak, texturak,
labanak, irudia, azpizuna,
simetria, perrexila, gatzak,
kazola, gozamena.

Kontzeptu eta elementuak
uztartuz sortutako guneak

DISEINUA SUKALDEAN



ACDA